

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

## 440

*AGINDUA, 2022ko urtarrilaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko martxoaren 29ko Aginduaren bidez emandako baimena aldatzen duena. Agindu horren bidez, DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao SL izeneko ikastegia ireki eta abian jartzeko baimena eman zen, beste herrialde batzuetan indarrean diren hezkuntza-sistemen arabera unibertsitate-mailako ikasketak –Espainiako tituluekin homologatzeko modukoak ez direnak– emateko.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko martxoaren 29ko Aginduaren bidez, DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao SL izeneko ikastegia ireki eta abian jartzeko baimena eman zen, titulu hauek eskuratzea bideratuta: Bachelor of Science in Real Time Interactive Simulation eta Bachelor of Fine Arts in Production Animation; DigiPen Institute of Technology; institutu teknologiko pribatuak ematen ditu titulu horiek, 2010-2011 ikasturteik aurrera izanik eragin akademikoa. Institutuak egoitza Redmond-en du, Washington-go estatuan.

2021eko ekainaren 8ko egunarekin, DigiPen Institute of Technology Europe-Bilbao ikastegiak komunikazio bat aurkeztu zuen aipatutako agindua eman eta gero izan diren aldaketekin.

Egindako eskabideari honako hauek aplikatu behar zaizkio; 420/2015 Errege Dekretua, maiatzaren 29koa, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzen dituen; 330/1999 Dekretua, irailaren 21ekoa, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemak oinarritzat hartuta, Espainiako estatuko tituluekin homologatu ezinezko unibertsitate-mailako ikasketak ematen dituzten ikastegien eraketa eta jarduna baimentzeko prozedurak eta baldintzak arautzen dituen; eta Unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu eta baimentzeko eta unibertsitate-zentroi akreditazio instituzionala emateko uztailaren 27ko 640/2021 Errege Dekretu berriaren lehenengo xedapen iragankorraren 3. apartatua.

Unibasq-en txostenak ezartzen duenez «aurkeztutako informazioaren eta eskueran dagoen informazio publikoaren arabera, ulertu behar da betetzen direla eta 420/2015 Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako alderdiak, AEBetako ikastegiko egitura berberarekin eskaintzen baitira irakaskuntzak eta AEBetako ikastegiak ematen baititu tituluak; egindako aldaketak onartuta dauzka eskumena duen agentzia egiaztatzaileak eta ez dira aldaketa funtsezkotzat jotzen, dago-kion arau-esparruan».

Ondorioz, Unibasq-ek derrigorrezko txostenak egin ondoren, eta Unibertsitate Zuzendaritzak irailaren 21eko 330/1999 Dekretuaren 2.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera egindako txosten arrazoitua kontuan hartuta,

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko martxoaren 29ko Aginduaren 1. apartatua aldatzea eta, beraz, Production Animation (BFA) titulua ordeztzea Digital Art and Animation (BFA) tituluekin, eta Real Time Interactive Simulation (Bsc) titulua ordeztzea Computer Science in Real Time Interactive Simulation (Bsc) tituluekin. Eragin akademikoak 2021-2022 ikasturteik aurrera izango ditu.

2022ko urtarrilaren 27a, osteguna

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horretaz gain, ongi iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 10a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.